

15 zentimetro

Ipar Korea eta Hego Korearen arteko aldea omen: 15 zentimetro. Gorantz, altueran, hegoaldeko biztanleek batzaz beste 15 zentimetro gehiago dute. Haztearen nolakoari buruz, gogoz gizenago ote dauden, ez dakigu ezer. Barruko geografiak duen koloreari buruz, ezertxo ere ez.

Maxima biblikoak dio gizakiok, bizi ahal izateko, ogia baino gehiago behar dugula. Hizkera soziologikoagoan, edozein gizartek bi funtsezko arazo konpondu behar ditu: giza bizitzaren dimentsio materiala eta sinbolikoa. Jateaz gain, hartu-emanetan ehundutako sare afektibo-sinbolikoei atxikita sostengatzen baikara.

Oraintsu entzuna dut atzerritik ekarritako ume txo adoptatu batek ez ei duela barrerik. Pertsonok gal omen dezakegu barre egiteko gaitasuna, jaiostean jasotako irri-esanen eskasia istripu emozional larri bilakatuz gero.

Mendebaldeko zibilizazio industrialia –bere jite kapitalista zein sozialista-erreal–, gai izan da inoizko aberastasun materialik handiena ekoizteko, hanka biko on artean inoizko alderik handienak sortuz aldi berean. Ostera, beste dimentsioari dagokionez, zentro komertzialak tenplu bilakatu dituen munduan ez du ematen asetzen gaituztenik kontsumismoari lotutako prozesioek, liturgiak eta errituak.

Betekada materiala eta anemia sinbolikoko garaiak. Behin gosearen azotea gaindituta, argal ditugu komunikazioa eta enpatia. Gose gaindituaren eztiak ez digu bestearen garratza gozatzen. Lennon-ek kantu bihurtu zuen: “Inongo ez den gizakia da bera, inon ez dagoen lurraldean kokatua, inorentzat eginez inora ez doazen planak”. Bitartekoetan perfekzioa eta helburuetan konfusioa.

Horra, Mendebaldearen konfesioa.



KARLOS CORBELLA

Adagio sozialista zahar hura datorrit gogorra: errazagoa da gizakia salbatzea, elikatzea baino. Ernst Bloch-ek buelta eman zion esapideari, gure gaurko existentziari dariona sinple seinalatuz: salbatzea baino errazagoa da gizakia elikatzea. Gonbidatu denak mahaian jesarrita daudenean eta guztiak ase, minak, gaixotasunak, zentzurik ezak eta heriotzak iraun egingo dute. Sufrimenduaren atal garrantzitsua sailhes-tezina baita.

Kontua da mina elkarrekin baretu dugula luzaroan. Tximinoen antzera, bestearen atzamar-rrak geure buru-bizkarrean pausatu dira, zorri bila ibili bitartean abaildura larriagoak estaliz. Besarte beroari amaraun likatsu iritzita edo, bakardadean kiribilduta egotera pasa gara.

Jatekoa oso txarto banatzeaz gain, besarkada-gosera kondenatu gaitu sistemak, eskuak gibelean lotuta bage-nitu bezala. Batean, merkatuak lapurtu digu bestearen ukimena (kapitalismoa); bestean, estatuak (sozialismo erreala). Biek ala biek menpeko bihurtu gaituzte, bestearen igurtziaz libratu baikaituzte.

Sagar mailatu lizundua- ren antzera zegoela ospitalean, hil aurretioxan, Marcuse maisu iraultzaileak zera esan zion Habermas-i: “Ikusten? Orain badakit non oinarritzen diren gure balio-judiziorik funtsezkoenak: errukian, besteen minagatik nozitzen dugun sentimenduan, alegia”. Tasun hori ote dugun errakitikoegi.

Euri zaparrada eguraldi on izendatu eta eguzki izpiak gure susmo ilunenak pizten dituen mende berrian, 15 zm-en ingurukoa izango da eztabaida politikoa munta ezin handiagokoa. Zenbat eta zelan hazi. Eta norantz, gorantz edo barruko geografiak aberasterantz.

Gurean, ETAre ziklo politikoa amaitu omen. Zailagoa egiten ote den ikustea hura bezain sententziatua dagoela orain arteko zibilizazio patroia. Ezkerrak ere, egokitzapenarekin eta errealismoarekin obsesionaturik, iraultzea sekula baino beharrezkoagoa dela ahaztu ote duen. n

« Maxima biblikoak dio gizakiok, bizi ahal izateko, ogia baino gehiago behar dugula.

Hizkera soziologikoagoan, edozein gizartek bi funtsezko arazo konpondu behar ditu:

giza bizitzaren dimentsio materiala

eta sinbolikoa

